

PuLunPe

143. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





Zeru urdina gris bihurtu da

Salbu naiz, hala ere

“zorte on”, esan diot nire buruari

Ez dut euritakorik

Bat-batean, ikusi dut

Urtetan begiratzen ari naizena

Zuhaitzak, argia (soilgunek) basoan

Eta loreak nonahi (sasoi ederrean)

Nire bizitza, guztionak dauka lekua he-

men (guztion bizitza sartzen da hemen)

Edertasun guztiak, eta baita

Inoiz asmatu ezin izan dudana (inoiz as-

matzerik izan ez duguna)

Etorkizuna

Jaio, hazi, maitatu egiten dugu

Ondoren... gutxika gutxika zimeldu

Bidean

Eta gero, erreleboa hartuko digute bide

honetan

Beste batzuek aurkitutakoa, guk aurki-

tutakoa (Beste batzuek ibilitakoa, guk

geuk...)

Berria aldi berean zaharra da

Itsasoko olatuen antzera

Errepikatzen diren olatuak

Arrokak bustitzen dituztenak, etengabe.

OLERKIA: Esteban K. ARGAZKIA: Laura G.

Naiara, Tasio eta Kontxi, Gorrontz-Olanoko banatzaileak

Hiruren artean banatzen dute aldizkaria, lasai askoan. Zuluren etxetik Lizason hartzen ditu aleak eta herrira ekartzen ditu. “Etxean ditut pulunpeak esan, eta pasatzen naiz hilabetero”. Kontxi Iraizoz Periko Zunzarrenekin bizi da Gorrontzen. Bertakoa da Kontxi, Iruñean jaio bazen ere, “oraingo guztiak bezala, nik uste ospitalean jaio ez zena ailegatu ez zelako izan zen”.



Bizikletarekin bost minutu eskasetan banatzen dute aldizkaria gaztetxoek, nahiz eta etxeko bankutik bertatik Gorrontzko 5 etxeak zenbatu ahal diren. Olanoko beste bostak, behintzat, ez dira ikusten. Aldizkariaren inguruan hitz egitera pasa gara. Kontxi ez daki euskaraz baina “ohituta” dago, “argazkiak ikusi, urtebetetzeen atala ikusi, begiradaxo orokor bat ematen diot zer edo zer ulertzen baita”.

Etxeko gazteak euskaldunak dira, eta ondo dagoela diote, “hemengo informazioa agertzen” delako. Etxeko txikiak den Tasiori ea banatzen nekutzen den galdetuta txirrindulaz doanez ezetz erantzun digu, edota aldizkariari zer kritika egiten dion galdetuta, ez duela aldizkaria apenas irakurtzen aitortu digu. Kontxi bere burua ikustea gogoko duela gogoratu dio.

Horretaz gain, Orgi basoko langile honek aldizkaria eskutan duela esan digu sumatzen dela jendearen parte-hartzea orekatua ez dagoela: “Batzuetan

bailara batzuetakoak asko agertzen dira, gero besteak... argi dago jendea mugitzen denean gehiago ateratzen dela”. Ekaineko eguerdiko eguzkitara hitz egiten geundenez, guk azaldu diogu ezinezko zai-gula herri guztietara ailegatzea hilabetero eta herri-komunikabide bat garen heinean, funtsezkoa zaigula herritarren parte-hartze zabala izatea.

Herrian oso pozik daude, ez lirateke hirira bizitzera joango, “hemen dagoen askatasuna handia da, kalean egun guztia egon zaitezke”, dio Naiarak. Tasiok ere ez luke herria utzi nahi, soilik Bartzelona futbol taldearekin jokatzera joango balitz.

Herrian bizitzea maite dute, nahiz eta onartu ne-guak gorriak direla gurean: “Azaro aldean, arratsaldeko bostetan gaua iristen denean, hala-moduan pasa behar... adibidez, elurretan ibiltzea gustukoa dugu”. Elurra, aitzitik, ez da egunero agertzen eta zer denbora-pasa duten galdetuta, Tasiok “playmobiletan” eta Naiarak, aldiz, ordenagailuan aritzea gustuko dutela esan digute. Uda on pasa, hirukote!

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi. **Emaila: pulunpe@gmail.com**


Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan. Azala: Arantxa

Koordinatzaileak: **Lur Gil eta Rey Iosu Martinez Urdaci**

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93

2015EKO UZTAILAREN 3AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Udan aisiarako eskaintza zabala igerilekuetan

Iritsi da uda, eta nola ez, beroa. Aldi berean, eta iaz baino arrakasta handiagoarekin igerilekuak zabalik dira jada. lazko prezio bera mantendu da abonuetarako, eta eskaintza handitu egin da. Hasi dira langile guztiak eskaintza horren prestaketa egokian, izan ere, aurten aisia

monitore bat dago. Amaia Ariztegi lizasoarra da langile berria, eta udal langileekin batera arratsaldeetan gai ezberdinetako tailer eta ekimenak antolatu ditu. Ostegun arratsaldeek pisua izanen dute aisiarako eskaintzan, igerilekuetan egingen baitituzte zenbait tailer, eta eguraldi txarra

egitekotan, Larraintzarko Bentan edo frontoian. Kirol eskaintzari dagokionean, igeriketa ikastaroa egonen da 100 lagun baino gehiagorendako. Egunero egingen dira ikastaroak, eta beraz uraren inguruan kirola eta aisia uztartzeko eskaintza polita dago aurten.

naturalak, gudak eta beldurra

AUTOBUS PUBLIKOA "SAN FERMINETARAKO BEREZIKI"

* Uztailaren 6a (astelehena)

09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 7a (asteartea)

01:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 8a (asteartena)

06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 9a (osteguna)

06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 10a (ostirala)

06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

Oharra: Gauko ordu batzako irteera Iruñetik, autobus geltokiko errefortzuzako karia izanen da.

* Uztailaren 11a (arabata)

01:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 12a (igandea)

01:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 13a (astelehena)

01:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 14a (asteartea)

06:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
09:30h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
13:00h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
15:20h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona
19:45h. - Iruña/Pamplona - Ultzama - Iruña/Pamplona

* Uztailaren 15a (asteartea) / 15 de Julio (martes)

Ohiko zerbitzua




ZE HERRITAN DAGO KOKATUA ETXE HAU?

IRABAZI BI PERTSONENDAKO AFARI BAT APEZTEGIBERRI TABERNAN!
IDATZI PULUNPE@GMAIL.COM HELBIDERA

HERRIKO JAIEN EGUTEGIA

UZTAILAK 10-11-12: BERASAIN
UZTAILAK 24-25-26: OSKOTZ, LATASA
UZTAILAK 31-AB 1-2: LARRAINTZAR
ABUZTUAK 7-8-9: OROKIETA, GERENDIAIN
ABUZTUAK 14-15-16: ARRAITZ, ELTSO, GARTZARON, JAUNTSARATS, LEAZKUE, ETSAIN, OLAGUE
ABUZTUAK 21-22-23: BERUETE, AROZTEGI
ABUZTUAK 28-29-30: ALKOTZ, ETXALEKU
IRAILAK 4-5-6: ELTZABURU, IHABEN, IGOA, ERBITI, ZIGANDA, ETULAIN



Amerikanuak: Anuetik Ameriketara

Oporretan egindako txango bat aitzaki hartuta, gazte koadrila batek Amaia Iraizoz laguna bisitatzea joan dira. Iraizoz Nevadako Unibertsitatean Amerikara joandakoen eragina ikertzen ari da. Gai interesgarria irudituz zaigu, kontuan hartuta bere familiaren bost belaunaldi Amerikara joan zirela.



Amaia Elizondo, Javier Iraizoz, Maitane Zubillaga eta Iñaki Iraizoz

Amaia, nola ailegatu zinen Renora?

Historia lizentziatura Nafarroako Unibertsitatean ikasi nuen, eta ondoren historiako ikerketa master-rra egin nuen UPNAn doktoretza egiteko asmoarekin. Bukatzerakoan komentatu zidaten, Nevadan Renoko Unibertsitatean *Center for Basque Studies* delakoan beka bat eskaintzen zutela emigrazioari buruzko tesia egiteko. 2013ko abuztuan Renon hasi nintzen doktoretzarekin, arras pozik.

Bi urte daramatzat Renon eta nahiz eta ikasketak sistema guztiz ezberdina izan, oso gustura nago hemen. Zentroa eta euskal liburutegia primerakoa da, eta unibertsitateko baliabideak ezin hobeak. Leku ederra da ikertzeko. eta bertako jendea jatorra da, bai irakasle zein bertze doktoretza

ikasleak; diaspora txiki batean bizi gara zentroan, ia denak euskaldunak. Lagunak zentroko bertze ikasleak ditut, bizkaitarrak denak, eta gero Renoko lagunak ere, amerikarrak. Erran beharra da amerikarrekiko arras ezberdinak garela euskaldunak. Renoko familia txikia badut.

Zure familian bada emigratu duenik, ezta?

Familian emigratzeko tradizio bada, nahiz eta nirea emigratzeko ezberdina izan, 5. belaunaldia naiz nire etxetik (*Ramoren*) ameriketara joaten. Familiaren historiako emigrazio kontuek sorrarazi ninduen ikertzeko grina, eta horrek eraman ninduen emigrazioari eraginak euskal herrian aztertzeak. Normalean euskal emigrazioaren historiografiak diaspora aztertzen du eta euskal herrian izan duen eraginaz ahazten da, eta horren ikerketen beharra dago.

Emigranteek kanpoan izandako eraginera mugatzen garelako beti, etxean izan zuten eragina ahaztuz. Hortaz, Nafarroan hutsune hori zegoela ikusten nuen, ez baitago emigrazioak eragindakoari buruzko lanik, eta, hori kontuan hartuta, nire tesiak, konkretuki itzulitako eragina aztertuko du.

Azalduko al duzu pixka bat gehiago hau?

Emigratu ondoren berriz herrira bueltatzen zirenek zer nolako eragina zuten beren herrietan, gizartearen, bizimoduaren, kulturaren, politikan... Horretan oinarritzen naiz, joaterakoan eta bueltatzerakoan emigranteek gizartearen eta ekonomian eragiten zituzten aldaketetan; XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera ikertzen dut. Nire ikerketa Erronk baidarara mugatzen da.

Anueko emigrazioari buruz zerbait esan ahal duzu?

Tesia Erron baidarara mugatzen dut, beraz Anueko zein zonaldeko bertze baidaretako errealitatea ez dut menperatzen; baina, erran beharra dago XIX. mendean Argentina zela helmuga nagusia eta XX. mende hasieran Mexiko bihurtu zela. Hala ere, Estatu Batuetara emigratzen zuten, nahiz eta ez Baztan edo Erronko proportzio berean.

Gazte askok emigratzen dute orain, parekatu al daiteke prozesua?

Emigratzeko prozesuak sekulako aldaketa jasan du, ikertzen dudan garaian, XIX. mendean eta XX. mende hasieran, itsasontziz egiten zuten bidaia, eta orain ordea hegazkinez, eta baldintzak ere ezberdinak ziren. Ezin da gaur eguneko errealitatearekin historian izandako prozesuak aztertu, beraz XXI. mendeko konparaketetan sartzea zaila da. Gaur egungo gazteek ikasketak dituzte eta ez doaz artzain lanetan, ingeniariak, arkitektoak, eta

bar dira.

Lagunak etorri zitzaizkizun, nora eraman zenituen?

Senarra aste santuan eta koadrilako batzuk kurtso amaieran joan zitzaizkidan bisitan Renora maiaztaren 23an: Etsaingo Iñaki Iraizoz, Aritzuko Javier Iraizoz eta Olagueko Maitane Zubillaga. Beraiekin 15 eguneko bidaia egin genuen Far Westetik, Reno hain ongi dago kokatuta non dena “eskura” geratzen den.

Guztira, 2.000 milia baino gehiago egin genituen 15 egunetan. Honelako “road trip”-a egin genuen: Yosemite, Las Vegas, Gran Canyon, Monument Valley, Zion National Park, Mojabe desertua, Los Angeles, Hollywood, Malibu, Big Sur eta San Francisco bisitatu genuen. Ekainaren 6an denak Euskal Herrira bueltatu ginen, ahaztu ezineko bidaia baten ostean. Lagunak, sekulako paisaiak, oporrak.. ahaztezina.

Maitane Zubillagari pare bat galdera

Nola bururatu zitzaizuen bidaia hau egitea?

Amaia joan zenean pentsatu genuen primeran egongo zela bidaia bat egitea bisita egiteko. Afari bat egin genuen behin eta bertan erabaki genuen joango girela. Momentu horretatik aurrera bidaiaren nondik norakoak antolatzen aritu ginen.

Zer moduz egon zineten?

Oso ongi joan zen dena. Lehenengo minututik hasita esperientzia zoragarria bizi izan genuen: jendea oso jatorra da eta lekuak ikaragarriak irudituz zaizkigu. Lehenengo egunetako Parkeak miragarriak izan ziren, baina bidaiaren bigarren zatia, Californiakoa, ez zen hain ikusgarria izan. Azken finean Los Angeles edo Las Vegashiri handiak besterik ez dira.



Adibide bat

“The Jaunsaras” (*Jaunsarasak*) oso ezagunak izan ziren bere garaian “Overland” izeneko hotelaren ja-beak izan zirelako, Gardnervillen, Nevadan. Euskaldun asko lagundu omen zituzten bertan. Halere, ez ziren beti Gardnervillen egon. Renoko Unibertsitateak euskal diasporaren artxibo zabala du. Bertan aurkitu daitezke hain bezalako hamaika testigantza eta elkarrizketa. Pulunpe aldizkarian gustatuko litzaiguke jakitea zure familiako norbait Amerikara joan zen, eta haien kontakizunak. Idatziz pulunpe@gmail.co helbidera edo deitu 649676764 telefonora.



Nafarroako diru iruzurrik **handiena**, Ultzaman batez ere



Ekaineko azken egunetan jakin zenez, hainbat diru-emailek 10 eta 16 milioi euro artean galdu dituzte “piramide itxurako” diru iruzurrean.

Epaia oraindik hasiera fasean badago ere, Ultzaman izan omen du eragin gehien engainu honek. Egunkari desberdinek argitaratu duten arabera, 20 urte

luzez martxan egon da diru “beltza” inbertitzeko sistema hau. Funtzionatzeko modua “sinplea” dela azaldu dute: diru beltza akusatuaren aholkularitza enpresan “inbertitzen” zen interes oso altu bartzuen truke.

Akusatuaren deklarazioen arabera, 1992. urtean hasi zen sistema hau erabiltzen. 2001. urte aldera arazoak hasi ziren eta inbertitzaile berrien diruarekin ordaintzen hasi zen aurrekoen interesak (hau da piramide iruzurraren funtsa), 2012.

urtean, diru emaile berriak ez sartzean, dirua itzuli ezin hasi ziren.

Miguel José Olañek, akusatu nagusiak, hamarnaka salaketa jaso ditu aurreko hilabete hauetan. Kazetari iturriek suposatzen dute kaltetutako jende gehiago dagoela, baina diruaren jatorri “beltza” dela-eta, askok nahiago bide dute ezer ez esatea. Diru kantitateak ikusita, Nafarroan publikoa egin den diru iruzurrik handienari buruz hitz egiten ari gara.

Banderen **isuna** konfirmatua

Gobernu berriak banderekin arazoak sortuko dituela ohartarazi zuen lehengoan Maria Chivitek. Nafarroako sozialisten buruak memoria edota ikuspegi arazoak ote?



Sinboloen legea onartu zenetik, Nafarroan arazo ugari sortu dira. Gure eskualdea ez da salbuespena izan: Basaburuko Udala 6.000 euroko isuna ordaintzera kondenatua izan da Espainiar ikurra ez jartzeagatik. Kontu hau ez da batere berria, gogoratuko duzuen bezala aspaldi dabilta gora eta

behera honekin, baina sententzia konfirmatu du Nafarroako Auzitegi Gorenak. Ibilbide judiciala oraindik bukatu ez bada ere, “oso aukera gutxi” daudela baieztatu digu Imotz eta Basaburuko idazkari den Aina Armendarizek. “Sententzia argia da udalaren kontra”, bandera ez jartzeagatik edo iraunkorki

ez egoteagatik. “Orain udalak erabaki beharko du bide hori hartzen duen edo ez”.

Iraunkortasuna klabe “Errealitate baten kontrako sententzia” dela dio Ainarak, udalak “ezin baitu bermatu ikurra beti egotea, bere esku ez dago eta. Bandera askotan kendu dute, berriro jarri da etengabe. Udalak eskatu zuen Gobernu ordezkariak izatea banderak ekartzen zituena. Ezetz erantzun zuten. Zortzi bat aldiz jarri behar izan dute ikurra. Kendu izan denean berriro jarri da. “Bartzuetan gertatu da asteburuan kendu dela eta Guardi Zibila bertatik pasa eta salaketa jarri

duela”. Bandera desagertzen den bakoitzean akta jaso dute, argazkia eta guzti, baina tarte horretan informe bat jasotzen bada... Isunaz gain epaiketaren gastuak ordaintzera kondenatu dute udala. Lege honen “zentsugabeak” salatu du idazkariak.

Orokorrean, “historian zehar banderekin arazo gutxi egon dira, baina erabilpen politikoa egiten denean arazoak” sortzen direla dio Armendarizek. “Udal txikietan inolako ikurrik ez egotea izango litzateke normalena”.

Chivite anderea, arazoak orain sortu behar badira, hau panorama, ezta?

Ultzamako alkatearen **agurra**



Udal korporazio berria irudian

Maiatzaren 24ko udal hauteskunde ondoan, Nafarroako mapa politikoak aldaketa sakona izan du, eta gure eskualdean ere hala izan da. Ultzaman EH Bilduk eraman du alkatetza bost zinegotzirekin; hortaz, Arantxa Martinez da alkate berria.

Kargu-hartzea gauzatu zen ezohiko osoko bilkuran, Basaburuko medikuak agur testu bat irakurri zuen, zinegotziak eta baita “aukera bat edo beste” bozkatu dutenak zoriontzeko.

Alkateak erantzukizunari buruz hitz egin zien zinegotziei: “udal hau osatzen dugunok herritarren aurrean behar bezala erantzutea tokatzen zaigu, eta gure ustez aipatu dugun aldaketa hori guztion artean egiten ahalegindu behar dugu, herritarren parte-hartzearekin egin behar dugu”.

Martinezek azpimarratu zuen jarrera “eraikitzailea, irekia eta gardena” izango dutela, eta politika sozialen aldeko lanean espero dute “guztiok bat egitea”. Alkate berriak krisi ekonomiko eta sozialaren biktimen alde eta murrizketak pairatu dituztenen alde egingo dutela azpimarratu zuen, “ea guztion artean lortzen dugun aldaketa soziala, gardentasuna eta parte-hartzea, euskararen erabilpena, eta berdintasunean oinarritutako ultzama eraikitzea”.

Aipamen pertsonal batekin bukatu zuen Arantxa Martinezek: “Pellori esker animatu nintzen udalean sartzen, orain gu bezalaxe, ziur harro egonen zela Euskal Herrian, Nafarroan eta Ultzaman taldeak egindako lanagatik eta talde ezkertiar eta abertzale batek irabazi duelako”.

Enkanteak Berueten eta Muskitzen



bi zuhaitz lote ateratu dituzte enkantera, zuhaitz asko, “2.000 arbol pasata”, dio herriko alkateak, “dezente dira, bai”. Herriak dituen zorrak ordaintzeko erabiliko da dirua, hori bai, nahikoa ateratzen bada, “gaur egun zurak ez du balio” eta.

Herriko terminoko hiru zonalde desberdinetatik aterako dira zuhaitzak eta uda honetan lanak hastea espero da. Urtebete irauten ahal dute lan horiek.

Muskitzen lote bakarra jarri zuten enkantean iaz, eta orain lanak bukatzen ari dira. Etxalekuko Larretakoek irabazi zuten enkantea, batez ere pagoez osatutakoa. Azken aste hauetan, enpresakoek bideak konpontzen ari dira, igarotzeko moduan geratu behar baitira.

30 urtez zura salmentara ateratu ez zuten, lote handia izan da eta orain irabazitakoa nola gastatu erabakitzen ari dira batzarretan. Muskitzen alkate den Alfredok esaten zigun oraindik ez dutela erabaki zer egin, “baina baliteke eraikitzen bukatzen ari den elkartearekin” zer edo zer gastatuko dutela. Horretaz gain jasotako %20 berriz basoan inbertitu beharko dute.

Momentuz, arbolak markatuta daude, “esperoan gaude, orain ea norbaitek erosten dituen eta ea zenbatetan, gainera”. Berueten

Euskararen aldeko **eguna** ospatu zuten Lantzen



Arrunt ongi igaro zuten Lantzen Euskararen eguna. Herriko jendea, batez ere gazteak elkartu ziren bertan. Eguraldi ezin hobea izan zuten gainera, horrek ere lagundu zuen giroa ederra izaten.

Duela hamabost bat urte Lantzen Euskaraz ikasteko talde bat sortu zen. AEKko kideak euskara irakastera joaten

ziren herrira, eta honela, 2003an Txondor Eguna antolatu zuten biztanleek. Besta ederra, txondor bat aurretik prestatua, artisauk, lan zaharren erakusketak...

Hurrengo urtean errepikatu egin zuten, egunaren arrakastaz oharturik, baina lan handia zen eta ezin izan zuten berriz errepikatu.

Hala ere, euskara tal-

deak jarraitu zuen, geroz eta jende gutxiagoarekin bada ere: lagun batzuek utzi eta beste berri batzuk sartu... azkenean ez zen posible segitzea jende eskasiarengatik baina Euskararen eguna ospatzearen proposamena egin zen, ahal izanez gero, euskara hutsez egiteko egun bat.

Gaur egun arte ekarritu horrek, eta ekainaren 20an egun osoko besta egin zuten, euskaraz bizitzen saiatzearen aldarriarekin.

Euskararen egunaren aurreko egunean herriko haurrek txartel eder bat prestatu zuten. Besta kalejira batekin hasi zuten, herriko trikitilari eta

pandero-joleekin. Ondoren, gosari txiki bat indarrak hartzeko, eta jarraian mus txapelketa.

Honela iritsi ziren bazkaltzeko ordura. Paella eder bat egin zuten Atarrabiako Alberto sukaldariak, eta mahaiaren bueltan elkartu ziren denak.

Arratsaldean haurrendako sukaldari eta mozzorro tailerrak izan ziren, pilota partiduak herriko mutiko eta nesken parte-hartzearekin, eta puzgarriak goiz eta arratsalde. Bazkaldu ondoren Agerralde musikaria etorri zen, eta han dantzetan aritu ziren afalordura arte. Honela bukatu zuten eguna.

Imozko **ugaldea** (Iregi) zikindua

Imozko ugaldea, Iregi deitua, maiatzaren 27an kontaminatu egin zen, purin (minda) ixurketa bat izan baitzen.

Harritu ginen nola zikindu zen ugalde guztia, jakinik gainera aurreko egun guztiak oso lehorrak izan zirela eta soroak erregatzeko prest zeudela.

Jakin ahal izan dugunez, sorotan purina (minda) botatzen ari zen langilea lan horietan berria zen eta nola egin behar diren gauzak ongi ez jakinik, hutsegite larria izan zuen.

Nafarroako Gobernuak In- gurumen polizia etorri eta gorabehera guztien berri hartzen ibili zen. Honetan geldituko balitz,

gaitzerdi, baina kontu hau ez da lehen aldiz gertatzen dena. Zoriturrez, lehen ere izan dira horrelako ixurketak.

Eta ez hemen soilik, iaz Ultzaman gertatu baitzen; eta Basaburuko ugaldean ere ezagutu izan ditugu.

Noiz arte?



Anuen korrika eta Basaburuan **korrika** eta txirrindulaz



Ekainaren lehenengo erdian bi lasterketa izan genituen gurean. Hilaren 6an Anuen krossa izan zen, eta 13an duatloia Gartzaronen.

Anueko krossak Eguraldia izan zuen lagun, eta horrek jendea erakarri zuen. 80 parte-hartzaile izan ziren, inoiz baino jende gehiagok egin zuten korrika aurtengoan. Pixkanaka ezagun egiten ari da Anueko krossa.

Bailarako boluntario askok lagundu zuen antolakuntzan. 20 boluntario inguru egon ziren, eta horrek egin zuen posible lasterketa.

Olagueko Sandra Riovana izan zen irabazle emakumezkoetan, eta Eugiko Aitor Seminariok gizonezkoetan.

Basaburuko duatloiak bigarren edizioa zuen, eta iaz bezala, aurtan ere jende ugari elkartu zen Gartzaronen. Nafar Kirol Jokoetako lasterketa izan arren, helduei ere parte hartzeko aukera eman zitzairen, bailarako jendearentzat zuzenduta. Ehun lagun inguru bildu ziren guztira duatloiera.

Prozesio sasoia

Egurdi onarekin batera etortzen dira prozesio eta erromeriak gurean. Imotzen, Trinitatea; Arañotz, Ultzaman eta Muskitz, Basaburuan. Azken honi buruz Miguel Mari Iriarterekin hitz egin dugu, eta azpimarratu digu aurtan maiatzaren 17an egin zela, ateri zegoela eta dena ondo atera zela.

Horretaz gain, gogoratu digu historia luzea duen usadioa dela Itsason egiten dena. Bitxikeria gisa, komentatu digu 1920 eta 1984. urteen artean ez zela bailara guztiko jendea etortzen, 3 edo 4 herrietakoak besterik ez. Horren arrazoia? Baseliza

urruti egotearen aitzakia erabiltzen omen zuten, baina egiatan, ermitan obra batzuk egin ondoren sortu ziren desadostasunak omen zeuden. Hala ere, azkenengo urteetan bailarako herri guztietako ordezkari bat agertzen da, bere gurutzia soinean duela.

Iraizotz, Zenotz, Eltso eta Urri- zolako jendea igotzen da urtero Arañotz mendiko zelaietara. Ekaineko lehenengo asteburuan Santa Luziako basiliza inguruetan egiten den erro- merian giro herrikoia izan ohi da: herri bakoitzeko taldeak bere kabuz antolatzen dira bazkaria eramateko,

meza eguerdi aldean egin eta azkenaldian Iraizotzen egiten dute dantzaldia.

Imozko jendea maiatzaren azken igandean Erason elkartu ohi da Trinitatera igotzeko, orokorrean. Aurtan eguraldi ona zegoen, eta 50 eta 60 pertsona inguru igo ziren, .

Aurtengo pasadizoa izan zen Irurtzungoek uste zutela bidea izor- ratua zegoela eta ez zuten traktorea bidetik igo: "Kontua da aurreko as- tean konpondu zutela eta imoztarrok bai igo genuela gure hamaiketako traktorean. Azkenean guztion artean elkarbanatu geunen janaria", esan digu Josebak, "aurten janari guztia bukatu zen".



Mamiaren egunaren inguruan 3 galderatxo



Seigarren aldiz ospatu zen festa hau eta aurten Iraizotzi egokitu zitzaion. Sandra da antolatzaileetako bat, eta honako galderak egin dizkiogu

Zer moduz joan zen dena?
Aurtengo Mamiaren Eguna oso ongi joan zen, iaz bezala eta urtero bezala. Helburua Ultzamara jendea ekartzea eta gure ohiturak erakustea da, horregatik nire ustez oso ondo joan

zen dena, jende asko etorri zelako.

Maiatza orain ekainean jarri duzue, lehen irailean jasotzen zenuten... Zer gertatzen da Iraizotzen, erotu al zarete?

Nire ustez Iraizotzen haize desberdin batek jotzen du, erotuta gelditu dira eta ez dakite ze hilabetetan gauden ere, (kar-kar-kar). Ohitura hori ez galtzeko herriko bestetan jasotzen dute maiatza. Mamiaren eguna herriz herri doa, ekimenak beti aldatzen dira ahalik eta ohitura gehien erakusteko eta egokitzen den herrian pentsatzen dute zein ohitura erakutsi, horregatik herriko jendeak pentsatu zuen maiatza jasotzea zela ohitura hobereena holako egun batean erakusteko.

Nola mantentzen da

ilusioa aldi askotan antolatu denean?

Orain dela 6 urte hasi nintzen ideia honekin. Inork ez zuen batere sinesten ideian, bakarrik nire familiak eta nik. Nik ez nuen inoiz antolatu antzekorik eta Ultzaman momentu horretan antolatu ziren antzeko jardunaldiak ez ziren Mamiaren Eguna bezala, eta ez nekien jendeari gustatuko litzaioke edo ez. Jendea bigarren Mamiaren Eguna antolatzeko animatu ninduten eta primeran atera zen! Eltzaburu txikia geratu zen hainbeste jende jasotzeko. Orduan ikusi nuen Mamiaren Eguna ezin zela galdu, jendeak gustuko zuela. Halere, gustatuko litzaidake denok kontzientzia hartzea eta jakitea lan honetan denak boluntarioak garela, musu truk egiten dugula dena eta gure ohiturak ez galtzea dela gure helburua.

Zirku egun berezia Burutainen



Ekaineko azken igandea oso egun berezia izan zen Anueko herri honetan. Arte Ezenikoen I. Jaialdia ospatu baitzen bertan. Jendetza

bildu zen: 300 pertsona baino gehiago! Aldizkari honen aurreko alean Dabid antolatzailearekin hitz egin genuen jaialdi honi buruz. Azaldu zigun festa honen

nondik norakoak: herriko jaien azkenengo egunean zerbait desberdina antolatu ohi dutela eta aurten kalitate jauzi bat eman dutela, eta herrikoen, bailararen eta Mankomunitatearen laguntzaz hurbileko eta urruneko artistak ekartzea lortu dutela.

Egun eguzkitsua aterazenez, jendea itzalean antolatu zen ikuskizunaz gozatzeko. Magia, malabare arriskutsuak, oreka

jokoak, joko parte hartzaileak...

Artisten plantela ikusgarria izan zen: Nafarroatik Navarcadabra izeneko konpainia, estatutik Máximo Óptimo eta nazioartetik Afro Jungle Jeegs etorri ziren. Azpimarratzeko, Afrikatik, Keniatik etorri ziren azken hauek. Zorionak antolatzaile eta parte-hartzaileei, espero dugu heldu diren urteetan holako gehiago ikustea!

Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina amaitu da

Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainaren barrenean euskarazko literatur liburuak erosteko 30 euroko bixteke zozketatu dira. Kanpainan parte hartzen ari direnen artean egin da zozketa, eta aurten maiatzeko zozketan Beuntzako Miren Egozkue Goldaratz izan da sari-tua; ekaineko zozketan, berriz, Arantxa Puignau Santxez Arraizko bizilaguna.

Kanpainaren helburua da euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea; horretarako, liburutegian euskarazko liburu bat hartzean fitxa bat bete behar duzu; behin liburu irakurri eta liburutegira bueltatuta, liburuazainak beste liburu bat erosteko %25 euroko laguntza-txekea emanen dizu. Liburu berria irakurri eta, nahi izanez gero, beste lagun bati oparitzen ahal diozu.



Arantxa Puignau eta Oskar, liburutegiko langilea.

Iritzia

Denen Alkate



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Berripaper honen edizio digitalak dio Joseba Asironen, Iruñeko alkate berriak "hiritar guztien" alkate izan nahi duela. Ez da, noski, asmo bera duen alkategai bakarra. Denek diote gauza bera!, esango du herritar fidakaitzak.

Hiritar guztientzat, ez da posible!, esango dute ezkorrak eta hozkorrak. Eta komeni ere ez!, seta-

tsuenak.

Alderdi batek bultzatzen ditu alkateak, baina herritar guztien zerbitzura lan egitea dute eginkizun eta obligazio, Ultzaman jasotako esararen bide-tik: "Alkatea, bestekin da alkate".

Hiritar guztien alkate izaten saiatzeko ez dago zertan printzipioak ukatu, hala behar du, baina

malgutasunak sendotzen ditu agintari baten printzipioak, eta ez se(k)akeriak.

Asironen asmo-deklarazioak, ordea, plusa du esan den hirian eta hiriaz esana delako: alkateak erakutsitako eskua-ren zabalak edo estuak, bostekoak edo ukabilak markatuko baitu hiria-ren eta Nafarroaren etorkizun hurbila.



rudi batean

Ikasketak, **etorkizunerako** beharrezko prozesua

Gaur egun gaztetan igaro beharreko etapa bat bezala ikusten ditugu ikasketak, behartuak gaude horretara. Batzuek ikasketak utzi eta lanean hasten dira, beste batzuek ikasten jarraitzen dute gustuko lana aurkitu arte, eta beste batzuek lan eta ikasi.

Gaztetan zaila da jakitea handitan zer izan nahi dugun, horretarako Larraintzako Obispo Iruñita ikastetxean orientazio saio bat egin zuten. Zonaldeko lau langile egon ziren bertan haiek izandako esperientzien berri emateko. Mezua argia: "Herriburu argia izan zein ez izan, anima zaitzete gustuko duzuen ikastera, lortuko duzue zerbait".

Larraintzarren hasi zituzten ikasketak, eta gero hainbat lekutan ibili dira ikasten eta lanean. Luis Mariñelarena (Lantz), Amaia Villabona (Ultzama), Jon Larretxea (Odieta) eta Izaskun Altuna (Lantz) izan ziren hizlariak, bakoitzak bere ikasketa eta lan prozesuaren berri emanez. Guk haietako birekin hitz egin dugu.



Luis Mariñelarena, albaitaria

1 3 urte ezkerotzik argi zeukan Luisek albaitari izan nahi zuela. Animaliak gustatzen zitzaizkion, baina baita eskailerak, eta zurgin izatea ere ba-

zuen buruan. Azkenik, tutorearekin hitz eginda, eta eskolan ongi moldatzen zela ikusita, Iruñean batxilerra egin ondoren, Zaragozako unibertsitatera joan zen albaitaritza ikastera.

"Gogorra izan zen hasieran Zaragozara joatea, ni gurasoen diruaz bizi nintzen bitartean, lagun askok lana zuten, Lanbide Heziketa ikasi eta segituan lanera. Horrela dirua bazuten parranda egiteko" dio Luisek. Hala ere ez da damutzen hartutako erabakiaz, "esperientzia polita izan zen, leku ezberdinetako jendea ezagutu, gustuko ikasketak...".

Gogorrena lan merkatuan sartzea izan zela dio, 23 urterekin lana lortu zuen, baina Asturiasen behar zuen. Han bi urte eman zituen, eta ondoren Ultzama aldean dabil albaitari. Gustura dabil orain, 25 urtera arte prestakuntza prozesu oso hori egin ondoren. Aholku bat ere eman zien oraingo ikasleei: "Ikas ezazue gustuko duzuen, gero gerokoak. Eta ikasi bitartean lantxoren bat egiteko aukera baduzue, hobe, lan egitea nolakoa den ikusten hasteko".



Amaia Villabona, fisioterapeuta

Larraintzarren ikasi ondoren, Iruñera joan zen ikastera. Garaiko batxilerra egin eta gero, Lanbide Heziketa hautatu zuen berak, elektrozitate elektronikoko gradua ikasi zuen. Gerora hamaika kontutan ibili da lanean: komertzial hasieran, Oraintxe banaketetan gero, transpaketerian auto-

nomoki ondoren... Beste gradu bat ikastea erabaki zuen, energia berriztagarriak; gradu hau eskaintzen zen aurreneko urtean.

Ikasketa batzuk bazituen, lana ere bai, baina ez zebilen gustura, eta Bartzelonara joatea erabaki zuen, fisioterapia ikastera. Bere burua ere ezagutu nahi zuen, zer nahi zuen jakiteko. Ez zekien non bukatuko zuen fisioterapia ikasi ondoren, ezta lanik izanen zuen ere, baina hori zen berak nahi zuena momentu hartan, eta hainbat ikastaro egin ditu azken urteotan.

"Momentu bakoitzean benetan nahi duguna ikasi behar dugu, gustuko ikasketak" dio Amaiak.

Honela Ultzama aldean lan egitea lortu du; ikastaroak egiten jarraitzen du, gehiago ikasteko, eta bitartean fisioterapia taldeak ditu, bizkarrezur arazoak dituen jendearekin edo bere bizitza hobetu nahi duen jendearekin. Ziaurritzen, Iraizotzen, Lekunberrin eta NARBARTEN ditu taldeak, eta Iruñean ere izatekoa da, lana beraz, ez zaio falta.

Gure eskualdean, **euskara** hilko dugu, ere! (1)

Urte mordoak daramazki euskalgintzak Euskararen buruz beheko gainbeherarekin kezkatuxea. Herri euskaldunetako gainbeherarekin, bereziki. Kezkatuta, Inork gutxi egiten ziolako kasurik. Ertzat eta txorotzat hartzen zutelako. Eta orain, UEMA eskatuta, Iñaki Iurrebaso soziologoak plazaratu berri duen "Udalerri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn 1981-2011" lanean, baieztatzen datoz Euskalgintzak aitatutako beldurrik handienak. Mamurik beltzenak.

Labur laburrean esanda. Herri erdaldunak euskalduntzen ari dira, eta, herri euskaldunak, erdalduntzen.



Pozgarria da, Iruñea, Bilbo, Gasteiz, Lizarra, Baiona, eta beste asko, euskalduntzen ari direla jakitea. Hori ukaezina da. Baina, era berean, gure begiratuaren zorrotzura datuak xehatuz gero, ohartuko gara, Euskarak goranzko joera daraman arren, toki horietan ezin gaitezkeela Euskaraz naturaltasun osoz bizi. Herri euskaldunetan bizi gaitezke Euskaraz bakarrik.

Euskarak herri euskaldunetan dirauelako bizi-rik. Horiek dira Euskararen arnas guneak. Horiek dira, bizia eta harria balio duten gure amazonas birrikak.

Eta horien osasuna etorkizunaren bermea da. Izan ere, Euskarak, berezko gune horiek galduko balitu, hizkuntzaren mailak behekoak egiten zukeen larriki. Freskura galduko luke. Esapide eta hitzen aberastasuna galduko luke. Doinua galduko luke. Finean, hizkuntzak behar duen gune naturala galduko luke.

Eta horrek, nahita nahiez, modu kaltegarrian eraginen lieke Euskararen goranzkoa hartu berri duten herri eta hiriei.

Zergatik gertatzen ari da beheko joera herri euskaldunetan? Arrazoi asko daude hori egiaztatzeko, konplexuak, batzuk. Baina ulertezkoak, jendearen migrazio fluxuak dira. Herri euskaldunetatik hirietara doazelako, batzuk. Eta,

hirietatik herri euskaldunetara doazelako, beste batzuk. Erdaldunak gehienak.

Guztiok jakitunak gara, hamar pertsonako lagun talde batean, erdaldun bat sartuz gero, baturaren emaitza hamaika erdaldun dela. Eta, ez, hamar euskaldun eta erdaldun bat, behar lukeen bezala. Matematikak ez dira Euskararen lagun.

Orain, adibide hori, herri batera estrapolatuz gero, emaitza kezkarri baten aurrean ginateke, erdaldun gutxi batzuek zenbateraino erdaldundu dezaketen herri euskaldun edo familia euskaldun bat ikusiko genukeelako.

Eta argitaratu berri den lanean, datu kezkarriak erakusten digu argazki hori. Nola zenbait herritan pasa den etxean Euskara ama hizkuntza %95 izatetik, Euskara ama hizkuntza %38 izatera. Ahoa bete hortz utzi gaituzte datu horiek!

Amiltze abiada horrekin, 30-40 urtetan, Euskararen eginen lukeela dio aipatutako ikerketak.

Ez gatoz inor mintzera idatzi honekin, sendabidea jartzeko kontzientzian eragitera baizik. Gure buruari etorkizun oparoa eskaintzeko, alegia. Horretarako, eskumena dutenei egiten diegu dei. Udal, euskara teknikari, elkarte eta besteri. Mugitzen hasi daitezene!



Jauntsarasko pisua

Jauntsaratsen karrikak egiten ari dira. Porlanez, beren azera eta guzti. Eta hor bazen aziendak pisatzeko pisu bat eta bota egin dute, traban zegoela eta. Azienda pisatzeko, baina aspaldian ez da lanik horretarako. Badakizue, orain azienda hartu eta mataderiara eramaten dutenean, Iruñera dela, Donostia dela, bertan pisatzen dute.



Hor etxe handi horien artean ageri den eraikin edo edificzio ttiki hori da baskula.

Lehenago bistara saltzen zen eta pisua jarri ondoren, pisura. Pisatu eta kiloko hainbeste eta horrela egiten zen tratua. Beste batzuetan, nahiz bistara saldu, aurretik jakin nahi izaten zuen nekazariak bere zekor, behi edo ardiaren pisua, jakiteko zer eskatu.

Guzti honetaz eskribitzeko, Sasturaindarrekin egon gara Jauntsaratsen, beren etxean, Benita, Pakita eta Joxepitarekin. Eta besteren batzuei ere galdetu diegu kontu hauetaz eta horrela moldatu gara.

JAUNTSARASKO BASKULA

Pisu hau Miguel Sasturainek eta bere aitak jarria izaten da, 1937an edo horrela. Lanean, *Errotta* kisuskila aritu zen.

Makina bat pisaldi egin zuten bertan. Hala esan digu Benita Sasturainek: *Denda izateaz gain, baskula jartzea ongi etorri zitzaigun. Lan franko izaten genuen.*

Gerrakoan eta ondoren ere, errevisa deitzen dena izan zen, ejertzitoa eta hirietako jendeari jatera emateko, Gobernuak errequisatu egiten zuen azienda. Errekisatzeko, Gobernuak erostunak jarri zituen han eta hemen. Hemen ere bai, eta hau joaten zen etxez etxe azienda ikusi eta erostera. Nekazaria, zuen aziendaren ariora, behartua zegoen saltzera. Azienda guzti hori aipatutako pisutik pasatzen zen.

Alderdi honetan, lan honetarako, Arrarasko Joxe Mari Beraza (*Iriartekoa*) izendatua zegoen edo Etxalekuko Migel Elizabeitia (*Erreuxenekoa*)

AZIENDA PISATZEA

Azienda jabeak etortzen ziren, oinez, beren zekorra, behia edo dena delakoa hartu erromaletik eta Jauntsaratsa pisatzera. *Zekorrak handiak izaten ziren, 200 kilokoak edo gehiagokoak*, dio Benitak. Pisatu, tiketa jaso, eta dendan egiten zituzten kontuak: hainbeste kilo, hainbeste pezta. Bai behar ere,

zenbait jendeak ez baitzekien multiplikatzen. Hori dena *Txokolaterorenak* egiten zuten eta pagatu berehala egiten zen eta gehienetan hauen aurrean. Jendeak konfiantza osoa zuen eta horrela konpontzen ziren kontuak. *Hori bai, bakoitzari bere tiketa eta papera ematen genion*, gehitzen du Benitak.

FRANTZIATIK IDIAK

Itsason ere bazen tratante bat, Antxotoneko Jose Latasa. Honek haragitarako idiak Frantzian erosten zituen, eta bere mutilek ekartzen zituzten takataka, oinez, honaino. Azpilkuetakoak eta alderdi hartakoak izaten ziren itzaia. Nekaturik hona iritsi, pisatu eta Joxek hemen bertan ordaintzen zien. Udaben kontatu digute nola idi horiek pasatzen ziren bertatik, *bidezaharretik* Urritzako herrira eta bertatik Irurtzuna. Dena oinez.

BESTE AZIENDA BAT

Urte batzuetara txekor ttikiak eramaten hasi ziren. Iruñeko Ganuza tratantea ibili zen hemen. Eta axuriak ere pisatzen zituzten, hamar-hamabost sartu pisuan eta denak batera. Axuri erosten Santiago Iturralde (Aizarozko *Luzearen* bordakoa) Martin Lazkano orokietarra, eta horrela. Hauek Zubillagaren kamionean eramaten zituzten Iruñera. Eta ardiak, berriz, launaka edo bosnaka pisatzen ziren.



Zure ezkerretik hasita, Joxepita, Pakita eta Benita ahizpak.

ZER NOLAKO ZALDIA!

Behin mutiko bat begira nola ari ziren pisatzen. Idi handi bat sartu omen zuten baskulan eta mutikoa harriturik:

-Hori zaldi kozkorrrra!

Hango algarak herri guztian entzun ziren.

Nongoa ote zen galdetu Benitari eta hala dio: *Herrikoa, herrikoa.*

Tximista baino erneagoak izaten ziren orduko mutikoak baina...

TRANPAK EGITEN ERE IKASI ZUTEN ZENBAITZUK

Tranpa beti izan da, eta tranposoak ere bai. Gerra ondorengo urte haietan ere bai, jakina. Zer egiten zuten behi eta zekorrak gehiago pisatzeko? Ba, gatz eman, aziendak oso gustukoa baitu gatz, haur batek heladua bezalatsu. Eta ikusia dago, ondoren egarria, alimalekoa, eta urez enpo egiten ziren, 20 edo 30 litro igual.

Tranpa honen jakitun, erostunek behartu zituzten azienda pisatu baino lehen gau oso bat pasaraztea toki jakin batean, konfiantzako toki batean. Jauntsaratsen, *Etxeberriko* beheitian edukitzen zituzten. Oso gutxitan, baina noizean behin, pisa erreka ederrak ikusten ziren bertan.

Berueteko emakume batek, berriz, zera esan dit:

Gue attek zekorrak pixik ez itteko zimurtzii itten zion bazkarriin (Horrela ez zuen kilo bat edo bi galtzen, jakina)

BASKULAREN BUKAERA

Pisatzea lana zen, baina dirua ere uzten zigun. 1,50 pztza izaten zen pisualdi bakoitza. Gero baskulak toki askotan jarri zituzten eta irabaziak urritzen hasi ziren; adibidez, Orokietan ere jarri zuten baskula. Baina bukaera etorri zen mataderian pisatzen hasi zirenean.

ETA BUKATZEKO ANEKDOTA BAT:

Behin bordari bat etorri zen, Beruetetik, eta erdaraz ez zekien asko. Tratantea Iruñekoa eta belarri motza.

Egun hartan, beste askotan bezala, behiak ez omen zuen baskulan sartu nahi eta tratantea azienda jabeari, buztanetik heltzeko esaten, bizkar gainean bihurritu eta eragiteko.

-Agárrale ustek del rabo, agárrale usted del rabo, oihuka.

Eta beruetarrak entendatzen ez, harrituta, entendatzen ez, eskuak ate gainean paratuta, zer egin jakin gabe.

Esan izan balio "agárrele de la cola" entendatuko zion, baina, rabo hitza ezagutzen ez. Guk ere ez genuen ezagutzen mutil egin artio hitz hori. Baina, bai puztana eta isatsa.

Ni ere pisatzen iritsi naiz behin baino gehiagotan. Apeztegiherriko *Patxi Villanuevarekin*. Hau izan zen aziendak pisatzen zituen azkena edo. Eta azkena ez baldin bazen, azkenetakoa bai behintzat. Tolosan saldu behar izaten zituen, pisua jakin beharrik ez, mataderian hiltzen baitzizkioten, baina haren zekor ikaragarri haiek behin eta berriz pisatzen zituen ea nola ari ziren irabazten jakiteko.

-Badakizu zenbat egin duen?: 700 kilo.

Haren poza! Ez zuen gehiago gozatzen beren zekor-zezen haien atzeak ikusten baino.

Orain bertan Patxi dut gogoan. Goian bego!

Elkarriketa egin ondoren jakin dugu Pakita Sasturain gaizkitu dela. Hemendik besarkada handi bat bidaltzen diogu. Aupa Pakita, goatzea utzi behar da hola edo hala-eta.



Hiztegia

AZERA: ESPALOA.

MATADERIA: HILTEGIA

MULTIPLIKATU: BIDERKATU.

HELADUA: IZOZKIA.

ALIMALEKOA: IZUGARRIZKOA, GAITZA.

ENPO: LEPORAINO BETE. ASE ERABAT.

ERAGIN: ERAIN. ZERBAIT EGITERA

BULKATU.

ENTENDATU: ENTENDITU. ZAHARREK

HORRELA ERABILTZEN ZUTEN.

"Ikaragarria izan da sare sozialetan izan dugun arrakasta"

Izaskun Zubialde, Oihanzabal eta Obispo Irurita ikastetxeetako langilea eta Euskal Mitologia. Haurrentzako ipuinak liburuaren egileetako bat.



Euskal Mitologia. Haurrentzako ipuinak liburua idatzi duzue. Konta iezaguzu pixka bat

Liburu hau 3 pertsonaren artean osatu dugu: nik euskaraz idatzi, Bakarne Atxukarrok erdaraz eta Asun Egurtzak ilustrazioak egin ditu. Bakarne eta biok irundarrak gara sortzez, han pasa dugu gaztaroa, eta gero maitasuna medio, Bakarne Iruñera ezkondu zen, eta ni berriz Iturena. Bakarnek Asun ezagutu zuen kasualitatez, eta Bakarne kazetaria denez, beti zuen buruan bueltaka euskal mitologiaren inguruko liburu bat egitea.

Berak komentatu zidan proiektua, eta asko gustatu zitzaidan. Hortik aurrera liburua egin eta argitaratu.

Ze ipuin daude liburuan?

Jada existitzen diren mitologia kondaira horiek hartu ditugu, irakurri ditugu, dokumentatu egin gara —Aita Barandiaranek, Azkuek adibidez asko dute idatzita— eta gai berari buruz dauden idatzi guztiak kontuan hartuta koktelera bat egin eta berri bat sortu dugu. Berez existitzen diren ipuinak dira, baina gure ukitu pertsonalarekin.

Gaur egungo testuingurura egokitu dituzue?

Ez, garai bateko ipuinak dira, guri ahoz aho iritsi zaizkigunak. Ezin da mitologia hori gaur egun txertatu. Hasierak beti antzekoak dira: Lehen, garai batean, bazen behin...

Dokumentatzeak lan handia eman dizue?

Dokumentazio lan koxkorra egin dugu azkenean, bai. Kontuan izan, pertsonaiaren arabera idatzi asko daudela hauen inguruan, kondaira asko, ezberdinak; zaharrei galdetu eta denek kontatzen dute zerbait ezberdina; bakoitzak bere ukitu pertsonala ematen dio. Orduan guk egin duguna

izan da funtsa hartu eta gure erara moldatu.

Oihartzun handia izaten ari da...

Guk testua eta ilustrazioak eginez liburua sortu genuen. Argitaletxei aurkeztu genien, eta oso proiektu polita zela, baina ez zigutela argitaratuko oraindik. Sarean jarri genuen, amazon atarian internet bidez saltzeko. Aste bakarrean 12.000 deskarga izan genituen. Aho bete hortz geratu ginen. Sare sozialen bidez asko zabandu zen, eta ikaragarria izan da sarean izan dugun arrakasta.

Eta orain liburu formatuan...

Berriozarko Denon Artean argitaletxeak gure alde apustu egin zuen, eta duela hilabete atera genuen lehen argitalpena. Bigarren argitalpena egiteko eskaera egin dugu jada, asko saltzen ari baita. Euskaraz eta erdaraz dago fisikoan, eta frantsesez amazon-en. Ahoz aho transmititzeko aukera izateko egin genuen hiru hizkuntzetan, guraso erdaldunek seme-alabei transmititzeko.

Asmatu duzue orduan?

Gaur egun umeek borroka baino ez dute ikusten telebistan, eta horrelako kontuak. Badira betiko ipuinak ere euskaraz: hiru txerri txoak, txanogorritxo... baina gure produkzio propioa ere badugu, eta gure helburua hori izan da. Nik uste euskal gizarteak eskertu duen zerbait izan dela liburu hau.

Beste proiekturik baduzue?

Bigarren zatia inprentan da jada, eta beste proiektu batzuk ere baditugu. Momentuz lehenengo zatia edozein liburutegitan dago salgai, eta laster bigarrena.

Elkar ezin **entendituz**

Lau urtetarik behin, tokatzen denez, udal hauteskundeak izaten dira. Udalerri hartan ere hauteskundeak izan ziren besteetan bezala eta suertatu zen hautatutako zinegotzi gehienak euskaldun berriak zirela.

Bakarren batek franko ongi zekien, baina besteak... juxtu antxean: alde batetik azentua erdalduna, es- truktura hala moduzkoa...Hori bai, hitz batzuk zail samarrak erabiltzen zituzten, liburuetan erabiltzen direnak baina herri hauetan euskaldun zaharrok ez dakizkigunak.

Dena dela, zinegotzi sail hartan euskaldun zahar pare bat ere bazen eta horietako bat euskaldun zaharra izateaz gain, alfabetatu gabea zen, hau da, ez zekiela euskaraz leitzen eta eskribitzen eta hitz berri horiek ikasi gabea.

Lehenbiziko batzarrea erraz pasatu zen, baina bigarren batzarrean, euskaldun peto-petoa zena isil-isila egon zen batzarre guztian. Gainerakoak euskaraz tirripiti-tarrapata, ahal zen bezala, ez nahi erara, baina isildu gabe. Nolako saltsa maltsa! Batzarrea bukatu zenean mahaitik altxatzean, zine-

gotzi euskaldun peto-petoak, besoak zabal zabal jarri eta erdi oihuka, hala bota zien denei:

-Ez'tiztek ostiaik entendittu!

Hura algarra. Denok irri karkailaka. Egun hartako anekdota izan zen. Erabat komikoa.

Euskaldun zarrok! erdi haserre esanen du hau irakurtzen duen euskaldun berriak eta gehiago batzarre hartan izan zena baldin bada. Lasai, ez haserretu, zuek, euskaldun berriok, guk baino gehiago egin duzue-eta euskararen alde, zuek duzue benetako meritua eta ez guk etxean ikasi dugunok kosta gabe. Segi ezazue lotsarik gabe euskaraz mintzatzen nahiz zangoa sartu.

Euskaldun zahar eta berri, gerenari eutsi! Eta horren gainera bota ikasiz joaten garena, zaharrek berriei eta berriek zaharrei.

Beno, batzarre bukaeran, ardo minduaren gustua kentzeko ardo frexkoa edatera joan ziren ez dakit nongo ostatura. Eta hori da gertatua, eta hau gezurra baldin bada, sar nazatela lgoako ostatuko kartzelan.

Badaiteke eta Badezakegu

Euskaldunak mediku hoberenak

Spainia guztirako egin den azkeneko MIR mediku azterketetan, lehenbiziko hamar artean Euskal Unibertsitateko bi ikasle daude (Proporzio ikaragarria da)

Maiatzaren 15ean EHUn, 2014-2015eko ikastaroaren graduazio ekitaldia egin zen eta bertan, Euskal Unibertsitateko agintariak harro azaldu ziren MIR delakoan izan duten arrakasta dela eta. Aipatu ere aipatu zuten behin baino gehiagotan, Unibertsitatean jasotako formakuntza bikainaren fruitu dela.

Baina ez zuten aipatu bi ikasle horiek euskara lerrokoak direla.

Bai, bagenekien guretako mediku hoberenak hemengoak direla. Bai, bagenekien hemengoak eta euskaldunak direnak izaten direla, oro har, mediku hoberenak. Ikus ezazu Youtuben esteka honetan aurkituko duzun bideoa. Merezi du.

<https://www.youtube.com/watch?v=vgyI2edf9ZU>



Oskotzen Juana Pagotok 100 urte



Juanita Pagoto Gartzaronek ehun urte bete zituen ekainaren 8an. Herriak omenaldi eder bat egin zion urtebetetze egunean. Kontzejuko kideak eta besteren batzuk ere hurbildu ziren Juanitaren etxera, **Etxotora**. Omenaldia ederki prestatua zeramaten, bai horixe! Aurretik zerbait esan zioten Juanitari uste gabeen harrapatu ez zezan, baina seguru gara ez zuela horrelako omenaldi polita eginen ziotenik pentsatu ere egin.

Akordeonez lagundurik iritsi ziren Etxotoko sukalderraino. Eta Jone Ciganda bertso zaleak prestatuak eraman zituen bertso batzuk kantatu zizkion, bertso batetik bestera bertso jakin bat tartekatuz eta hori bildutako guztiak kantatuz. Ondoren, horrelakoetan izaten den bezala, lore sorta ez zen falta izan. Herriko gazteenak, Xabi Baleztenak eskutik eskura eman ziona.

Herriko alkateak, berriz, kuadro eder bat oparitu zion, fotografia puzzle harrigarria, non bere seme-alabak eta bilobak ageri diren, garai guzietakoak, fotografia batzuk oso zaharrak, beste

batzuk ez hainbeste eta beste batzuk berriagoak. Lan ederra egin dute, eta asmatu dute. Jakina, otamenarik ez zen falta izan, tarta eta guzti.

Pagototarren ibilerak

Pagototarrek gure alderdiko ia ibar gehienak ibili dituzte. Gaurko protagonistaren aitatxi, Ignazio zen, Inbulezketan jaioa (Esteribar) eta amatxi, berriz, Josefa Goñi, Urritzolakoa, (Ultzama) Ziaurritzen (Odieta) bizitu ziren.

Ondoren Imotza etorri ziren eta hemen ezkondu zitzairen Joaquin, Oskozko Francisca Garzaronekin.

Hala esan digu Juanitak: *Ni Etxalekuko Dorrotozaharreen jaio nintzen. Gero Zapatiñeneko baltegiara joan ginen. Eta ondoren Basaburura jo genuen, Ihabengo Arotzeneko bordara. Eta Ihabendik, Muskizta (Imotz) eta Asiñeneko maistarretxean, Dukenean, bizitu ginen.*

Eta bertatik Oskotza, betiko, eta hemen ezkondu zen. Hemengo kontuak Joxek berarekin bizi den semeak argitu dizkigu: Lehenbiziko Etxotonean bizitu ziren eta ama ezkondu zenean, Sastrenean jarri ziren bizitzen. Ni Sastrenean jaio nintzen, eta senide zaharrenak ere bai. Gero Etxeberriko borda erosi eta senide gazteenak bertan jaio ziren. Ondoren, berriz herrira, Zurgin etxera, Etxotoa saltzera atera eta erosi genuen artio. Ia 30 urte izanen ditu kontu honek.

Hala esan diogu Juanitari:

-Juanita toki askotan bizitu izan zarete.

-Bai, bai, mixeri franko. Ni Izurdiagan eon nitzen serbitzun, 16 urtetan joan nitzen ta bost urte pasatu nittun. Gio Oskotza eta ezkondu nitzen Patxikin (Francisco Narvaez) Eta maixtar jarri giñen Sastrian itxan.

Ne senarra, Patxii, Muskizko Mieleneakoak man zion dirue itxa iosteko: "E'tzattela hola ibilli, nik main dizut zerbate". Eta hola iosi giñun Etxeberriko borda. Hamika urte pastu'ttuu borda hortan.

Ez ur ta ez argi. Gio patu ziuten bai, ure ta argie. Errekia joaten nitzen lixue uren pasatzia, belau-neko! Ze lanak itten nittun, ta kontent hala ere! Pagototarrek historia luzea dute Imotzen eta beste kontu franko kontatu dizkigu Juanitak. Ora-indik memoria ederra dauka Juanitak.

Izan ongi Juanita eta beste bat artio! Beste baterako gorde beharko ditugu kontu horiek! Hola despeditu dugu Juanita, bere seme-alaben ondoan erregina bezala bizi dena.

Cristina Altuna, UPNko parlamentari berria eta Ikarregiko biztanlea

"Gaur inoiz baino gehiago beste alderdi politikoekin hitz egiteko beharra dugu parlamentariok"

Aldaketa politikoa gauzatzen ari den egun berezi hauetan, izen berri asko ikasten ari gara politika mailan. Horien artean eskualdeko kazetari honena dago. Nafarroako parlamentuan hasiko da legealdi honetan. Orain arte boterean egon den alderdian hasi berria bada ere, bere hitzek erakusten dute ildo berri bat jorratu beharra dagoela.

Nola ailegatu zara kazetaritza politikara?

Javier Pérez nirekin jarri zen kontaktuan. Komunikazio aldetik gauzak indartu nahi zituela, hizkuntza aldetik nire perfila ere gustuko zuela... Konbentzitu ninduen eta baietz esan nion. Ikusten nuen alde horretatik zerbait eman nezakeela. Kazetaritzan asko entzun behar da eta politikan gehiago entzun beharko luketela deritzot. Azkenean aurre-rapausoa ematea erabaki nuen, gaitasun profesionalei erreparatu, eta eskertu nuen hori ikustea.

Noiz izan zen hori?

Oso azkar joan da guztia, zerrendak osatu baino pare bat aste lehenago jaso nuen deia. Kazetaritzan kontaktuan izan ditut politikariek: prentsaurrekoetan eta holakoetan, baina orain arte ez nuen erlazio handirik, horregatik eskertzekoa da zure lanaz ohartzea.

Bat-batean sartu zara, nola ikusten dira gauzak barrutik?

Dena nahastua dago. Ez dut oraindik hausnarketa hori egiteko astirik izan. Orain hasiko da lana egiteko momentua. Bileretara ez noa inoren ordezkari gisa, laguntzeko prest nago, lehen aipatu bezala, oraindik denbora behar dut kokatzeko.

UPNk hauteskundeak irabazi baina gobernua galdu, ze balorazio egiten duzu?

Ikus daiteke alderdi politikoak 20.000 bozka galdu dituela; horrek esan nahi du jende horrek zugar konfiantza galdu duela, eta hori txarra da. Halere, positiboki begiratu beharra dago ere, 91.000 nafarrek gugar konfiantza dute, Nafarroan alderdi politiko bozkatuena da. Hauteskunde hauen faktore garrantzitsu bat bozen banaketan dago; oso

banatuak egon dira emaitzak, orokorrean, horrek behartzen zaitu besteekin hitz egitera, akordioak bilatzera. Gaur inoiz baino gehiago beste alderdi politikoekin hitz egiteko beharra dugu parlamentariok. Bide hori jorratu behar dugu.

Autokritika zantzua hartzen dizkiot zure hitzei... Akordioetara ailegatzeko negoziatu beharra dago eta horretarako, nolabaiteko malgutasuna behar da... UPNk orain arteko jokamoldea aldatuko ote du?

Nire ustez autokritika egiteko beharra dago, ez dakit orain momentu egokia den gogoeta sakon hori egiteko; dena itxita dagoenean etorriko da garaia hausnarketa sakona egiteko: nola hobetu daitekeen kudeaketa eta nora jo behar duen alderdi politikoak. Behar hori dagoela ikusten dut.

Errealitate politiko berrira moldatzeko UPNk bere diskurtsoa aldatu beharko du, eguneratu...

Autokritika zerbait negatibo bezala ikusten da, eta ez da horrela. Gizarteari azaldu nahi diotun ideia ez baduzu behar bezala transmititu, arakatu beharra dago gauzak hobetzeko. Azkenengo lau urte hauek oso zailak izan dira... Begira beste lekuetara, begira Gipuzkoara... Arlo asko dago hobetzeko, ez bakarrik arlo politikoan, arlo pertsonalean ere.



Segalariak, etenik gabeko transmisioari eutsiz

Garai asko ezagutu ditu segak. Zaila litzateke esatea zehazki noiz sortu zen belar lanetarako ezinbesteko tresna hau, eta gaur egun ere, baserri guztietan mantentzen da, nahiz eta makinaria berria egon, zenbait lekutan beharrezkoa baita sega erabiltzea.



Arraratsen egindako aurkezpenaren irudia

Baserriko tresna ugari pasa dira eskuetatik erakustokietara, paretetan eskegita egotera. Baserriko lan asko ere pasa dira kirol izatera eta ikuskizunaren mundura. Adibiderik argienak herri kiroltako modalitate guztiak: arpana, txingak, zaku lasterketa, idi probak, gizon probak... Sega ere ikuskizunean sartu zen aspaldi, gainontzeko herri kirolak bezala, baina segalariak ez dira soilik erakustaldi edo txapelketetan parte hartzen dutenak, segalari asko daude gurean.

Apustu soroak eta txapelketak

Apustua ere segari lotuta egon da. Apustu soroak daude herri askotan, eta nahiz eta gaur egun horretarako ez erabili, herri bakoitzean apustueta- bideratutako soro bat zegoen. Landatik hirira ere egin du salto azken urteotan. Horren erakusgarri Euskal Herriko sega ligaxka, Almitza sega elkarteak antolatuta. Hiru saio izan dira aurtengo, Azpeitian lehenengoa, Ihabenen bigarrena eta Tolosan hirugarrena.

Mikel Bereko, Arrarasko segalaria

Ligaxka horretan eta erakustaldi ugaritan parte hartu izan du Gorritin jaio baina Arraratsen bizi den Mikel Berekoetxea segalaria. Urte batzuk daramatza kirolean, eta asko belarretan lanean. Behiak edukita, txikitik sega erabiltzea beste erremediorik ez du izan, eta helduagotan, lagunarteko ostatuko hizketaldi batetik hasi zen

erakustaldietan parte hartzen.

Herrietako bestetan, apustuetan zein txapelketetan aritzen da. Azken honi dagokionez, Almitzaren ligaxkan lehiatzeaz gain, uztailaren 5ean Nafarroako sega txapelketan parte hartu zuen Azkaraten (Aldizkaria idaztean oraindik ez zen jokatu txapelketa, beraz emaitzarik ezin eman), eta Euskal Herriko txapelketa ere jokatu du.

Ireber sega koadrila

Arrarasko bestetan aurkeztu zuten Ireber koadrila. Mikel Bereko segan eta lagun larraundar, leitzar eta basaburutarrak laguntzaile ezinbesteko ditu. Koadrilaren izenak Ireber mendiari egiten dio ohore, denek izaten baitute begi-bistan mendia euren bizitokietatik.

Jokin Mikeo, Berueteako gaztea

Basaburuan bermatuta dago segaren etorkizuna. Gazte gutxi erabiliko dute gaur egun sega lanetarako, baina Jokin Mikeo, 12 urteko beruetearra hasi da erakusketa eta txapelketetan parte hartzen. Etorkizun bikaina daukala diote askok, oraindik ere belar asko dauka mozteko, eta teknika aldetik ikasteko, baina urte asko ditu aurretik, eta belaunaldi zaharragoen aholku guztiak.

Ihabengo txapelketan parte hartu zuen, eta baita Arrarasko bestetako erakustaldian, segaren transmisioa, beraz, ez da gelditzen, eta segak jarraitzen du soroak moztzen.

PATXI ETA JOSU, AIZAROKO BIZILAGUNAK ETA GORAKI SOINUAKO LANGILEAK:

“Gure sekretua inplikazioa da”

Patxi Miranda eta Josu Puerta Basaburuan bizi dira aspaldi eta duela urte batzuk soinu ekoizpen enpresa bat sortu zuten. Herri batera lanera joateko kamioia kargatuta zeukatela harrapatu ditugu, semeak eta guzti. Aldizkari hau irakurten duzun momentuan, ziurrenik lanean egongo dira, abestiak dioen bezala, “edozein herriko jaixetan”.

Hiru bat urte daramazue enpresarekin, ezta?

Bai, aurtengoa hirugarren denboraldia da, ez badiugu hastapenak kontuan hartzen: hasiera-hasieran nolabaiteko frogak egiten ibili ginelako.

Nolakoa izan da eboluzioa?

Progresiboa izan da: kontuan hartu behar duzu zuzeneko munduan enpresa asko daudela, lehiakortasun handiko sektore batean sartu ginelako. Gutxika-gutxika gure lekua eta bezeroak egin ditugu: ilusioa jarri diogulako edo gure lana gustuko izan dutelako... Hala ere, gure eguneroko lanean ere beti gaude bilatzen aukera eta bezero berriak: zuzeneko ikuskizunetan soinua jartzeaz gain, ikuskizun horien ekoizpenean lan egiten dugu eta azkenaldian eraikinetan soinu eta irudi aparatuek kokatzen gabiltza ere: kulturetzeetan proiektoreak, argiak eta holakoak jartzen... Azkenean, jendearen beharretara moldatu behar zara.

Udako denboraldia orain hasten da ?

Ez pentsa orain hasten denik, apirila aldera hasten da benetako denboraldi “altua”. Gure kasuan Sanduzelaiko jaiekin hasi zen “uda”. Negua guretzat lasaia da: urteko balantzea egin, hobetu beharreko gauzak pentsatu, materiala begiratu... Azaro eta martxo artean prestaketa lanak egiten ditugu eta handik eta hemendik zenbait kontutxo egiten ditugu, adibidez, Lur aretoan teknikari lanak egin ditugu. Apirilean hasiera ematen diogu denboraldiari eta urria arte jo ta fuego gabiltza!

Ezohiko ordutegiak dituen lana da zuena, ezta?

Alderdi onak eta txarrak dituen lana da gurea: alde

positiboak dira familiarekin denbora dezente pasatzen ahal dugula: umeak eskolara eraman, ekarri, bazkaria egin... Abantaila handiak ditu ikuspegi horretatik, baina beste aldera begira, baliteke 22 ordu jarraian lan egin beharra, edo 12, edo 6... Orain adibidez, Sanjoanek dira eta Uharte Arakilen kontratatu gaituzte jai guztietarako: lau egun jarraian 12 ordu lan eta 6 ordu lo egiten ibili behar dugu. Gogorra badirudi ere, gu pozik gaude: astelehena ailegatzen da eta jendea lanera doan bitartean gu lasai gaude etxean umeekin...

Bere garaian eraikuntzaren burbuila eta udalen kultur ekimenak nolabait lotuta egon ziren eta gero ere gainbehera etorri zen, zein da sektorearen egoera orain?

Aldaketa politikoa udal askotan sartzeak garrantzitsua izan beharko luke, askotan gertatzen zaigu kontratu bat lortu nahi dugula baina ohituragatik beti enpresa berdinari ematen diotela lan hori. Askotan borondate onez egiten bada ere, aukera aniztasuna jorratzeko inertziak sortzen ditu. Aldaketa eta berrikuntza garaiak dira: ateak irekitzean aukera gehiago egongo dira guztientzako, ez guretzako bakarrik.

Egoera berri horretan zer eskaini dezakezue zuek besteek ez dutenik?

Gure sekretua inplikazioa da. Hasiera-hasieratik saiatzen gara bezeroa laguntzen. Programazioa prestatzen askotan laguntzen ditugu: gazteen egunerako zein kontzertu hautatu edo jubilatuen egunera begira talde hau eskaintzen laguntzen dugu... Ahal dugun heinean laguntzen dugu jendea.



Josu, Egoi, Eneko eta Patxi, furgonetan.

Ametza kultur elkarteko argazki lehiaketa

Irabazleak Joselu Erro, Marta Garcia eta Ane Arrarats izan dira, zorionak argazki eder hauengatik!




IRABAZLEA: GEREZIONDOA



JOSELU ERRO:
“KONEXIO HANDIA DUT ZUHAITZ HORREKIN”


Gaur egun gauzak dauden bezala egonda, 300 euro sari bikaina da. “Gereziondo” argazkiarekin irabazi du berak, “oso polita da zuhaitza, aspalditik fitxatua” zuela esan digu: “Arratsalde partean oso eder jartzen da argia jaisten denean. Hodei beltzen artean neguko eguzkia sartzen zela egin zuen argazkia, beti eramaten duelako soinean kamera. Zuri beltzera pasa zuen gero argazkia “beste ukitu bat ematen baitio”. Horretaz gain, Eltzaburun dagoen arbol hau txikitatik ezagutzen du Joseluk, “nire osabak eramaten zuen soroan dago eta beti egon da familiako lanetatik hurbil”.



EGUNSENTIA ZIAURITZEN

ZENBAIT DATU

Txapelketa honetan parte hartu dutenak denera 37 izan dira, 30 lan Jauntsaratsen aurkeztu dira eta 7 Larraintzarren. Irabazleek 300, 200 eta 100 euroko sariak jaso dituzte. Argazki aukeraketa prozesua 8 pertsonen osatutako epai-mahai batean egin zen, argazkien egileen anonimotasuna azken momentu ailegatu arte mantenduz.



BIGARRENA: LAUBIDE




MARTA GARCIA:
“NIRE BEHORREI ESKER ATERA NUEN ARGAZKIA”

Beramendin bizi da duela bi bat urte eta “oso pozik” agertu da saria jasotzeaz. “Gartzaronen behorrrak ikustera joan nintzen, eta bueltan sekulako euri jasa bota zuen. Eguzkia atera eta berarekin batera or-tzadarra. Argazkia egiteko unea bertan sentitu nuen. Telefono mugikorrakin pare bat argazki egin eta listo. Saria behorrei zerbait erosten gastatuko dut, beraiei esker lortu bainuen argazkia ateratzea!



ARRASTEIA AUZAN



BASABURUKO IRABAZLEA: DELICADEZA

BASABURUKO EGUNEKO ARGAZKI LEHIAKETA

Gure lehiaketaz gain, Basaburuan ere antolatu zuten berea, aurten Laura Gurbindok eraman ditu lehenengo bi sariak eta Irantzu Legarra gartzarondarrak hirugarrena. Zorionak!



2015eko maiatza. Gure alderdian, maiatzean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

JAIOTZAK:

IMOTZ
GOLDARATZ
Elai Elizondo Astitz, Santiago eta Izaskunen semea, 2015eko maiatzaren 14an, *Haizeleku* etxekoa.

ULTZAMA
IRAIZOTZ
Elaia Oiartzun Arregi, Ioseba eta Cristinaren alaba, 2015eko maiatzaren 12an, *Muñoan*.
LIZASO
Iker Arriada Gurutxarri, Alberto eta Itziarren semea. 2015ko maiatzaren 2an.

ZORIONAK JAIOPERRIEN GURASOEI!




Elaia eta familia

EZKONTZAK:

ATETZ
BERATSAIN
Roberto Perotxena Ibarrola, Olaguekoa eta Ana Egozkue Gerendiain, Beratsaingo Azpikoetxekoa, 2015.05.01an.

ULTZAMA
LIZASO
Gabriel Andres Fernandez Martinez eta Maite Portillo Ziriza, 2015.05.28an.

URTE, UME ETA ZORIONAK PERRATAKA EZKON BERRIEI!



Maite eta Gabriel

HERIOTZAK:

ANUE
EGOZKUE
Antonio Loperena Goñi, 2015.05.21ean hila. *Bernartenekoa*.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARA.



Antonio



Miru kume batzuen istorioa

Askotan aipatzen dira animaliek sortzen dituzten kalteak. Hartzek ardiak jaten dituztela, eta beraz, artzainari kalte egiten diotela. Basurdeek errepidera salto egiten dutela eta auto istripuak gertatzen direla. Sugeek beldurra emate digutela. Armiaimek beti gure kotxean egiten dituztela amaraun sareak...



Zein da hor, ordea, kanpoko elementua? Zer jaten zuten lehenago hartzek? Nondik ibiltzen ziren basurdeak? Sugeak ez al ziren lasai bizi? Non egiten zituzten armiaimek amaraunak? Gure kotxe eta errepideak baino lehen zeuden hauek gurean. Beraz, ez al gara gu izango kalte egiten diegunak?

Duela egun gutxi, guk bertako animaliei egiten diegun kaltearen adibide bat ezagutu genuen Jauntsaratsen. Hiru mirukume, errepidearen alboan, amaren babesik gabe. Zuhaitzak botatzen aritu ziren langileak, eta miru kabi bat erori zen zuhaitzekin batera. Horren ondorioz, miru amak ihes egin zuen, eta kumeak bertan utzi. Langile batek aurkitu zituen, kutxa batean jaso eta haiekin zer egin ez zekiela guri galdetu zigun. Xabi basozainak jaso zituen gero, Ilundaingo animalia galdutako zein zaurituen zentrora eramateko.

Xabik kontatu zigunez, askotan gertatzen dira hola-lakoak. Hontza bat jaso zuen duela gutxi, eta beste-lako animalia handiagoak ere jaso izan ditu. Bakean elkarbizitza egiteko aukerarik ba ote dago? Zenbat kalte egin dizkiegu hemen gu baino lehenago bizi ziren animaliei?

Nafarroan, euskararen egoerari begira

D ereduaz, Kepa Mateorena, Basaburuko eskolako zuzendaria:

Nafarroan zenbait tokitan badira D ereduiko lehen hezkuntzako eskolak, hau da, gaiak euskaraz ematen dituztenak. Hala ere, Nafarroako Gobernuaren eskutik beti oztopo, maltzurkeria eta tratu nahia besterik ez da ikusten. Orain urte batzuk, testuliburuekin ibili zen kazkartua. Aurten, berriz, ETaren aldeko irakasle bakarren batzuk ba ote diren: Iraina, gezurra eta gaizki esana. Zertan dabil Nafarroako Gobernuak? Zergatik beti D ereduaren kontra? Esaiguzu zerbait, Kepa.



“Euskararekin lotutako gai guztiekin egiten duten bezalaxe bazterrak nahasten ari dira.

Nafarroan euskaraz ikastea eta euskara ikastea, eskubidea da edo hobeki esanda, eskubidea izan beharko luke. Eskubidea den bezalaxe, besteak beste, erakunde publikoei dagokie hori bermatzea. Hori da abiapuntua eta kitto. Nafarroa osoan D ereduaren zabaltzea eskatzen dugunok eskubide bat eskatzen ari gara, ez besterik. Nafarroa osoan euskaraz ikasteko aukera izan nahi dugu.

D ereduaren kontra aritzea estrategia politiko baten barrenean kokatu beharko litzateke. Batzuei, euskararen mehatxuaren irudia zabaltzeak errendimendu politiko ona eman die, eta hori gertatzen den bitartean, bere horretan jarraituko dute. Horregatik, beti saiatuko dira euskarari prestigioa kentzen eta euskara zikintzen. Estrategiaren adar bat da”.

ZORIONAK ZUEI!



Leyre



Sarai



Ainhoa



Arturo



Miren



Jose Miguel



Miren

Sateliteari esker, internetera konektatu zaitez

22
Mega arte

Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta Maria 14 31012
IRUÑA
info@senatel.es

Internet donde no llega nadie

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS
A RECICLARSE? PONLE CABEZA
ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN
KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA
RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak*

Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorak eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es



⚡ Instalaciones Solares Térmicas
 ⚡ Instalaciones Solares Fotovoltaicas
 ⚡ Calderas y Estufas de Biomasa
 ⚡ Ahorro y Eficiencia Energética

energia berriztagarriak
tedesna
energías renovables

⚡ Eguzki-instalazio termikoak
 ⚡ Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
 ⚡ Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
 ⚡ Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

☎ 685 907 634 - 685 907 635 ✉ tedesna@tedesna.com 🌐 www.tedesna.com

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Internet etxean arazorik gabe!

22 Mb-erainoko abiadura, hilean 45,48€ ordainduta. Internetera konektatu, zure etxearen kokapena arazoa izan gabe.

- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500
WWW.SENATEL.ES
info@senatel.es

SENAtel
Telecomunicaciones



UIDA ONA PASA ETA IRAILA ARTE!